

**BAI!**

Gaur ainbeste maite dan  
 Bankoko chartela  
 Da malko-zapi baten  
 Puska bat bezela...  
 A! ez aztu *bankoa*  
 Zeruan dagoela  
 Ta baterako eun  
 An ematen dela.

**AMAREN MUSUAK.**

Ama batek emanak  
 Semea jaiotzean,  
 Dolorez azitzean,  
 Gero apaiz egitean,  
 Eta martiri iltzean:  
 Musu oietan zér zan.....  
 ¡Nórk esan paperean!

**NERE BIOTZARI.**

¡Zenbat aldiz ¡biotza!  
 Joan nai dezun  
 Barrendik kanpora!  
 Baña, maite banazu,  
 Ez lurrera;  
 ¡Zoazkit an gora!

ANTONIO ARZÁC.

